

MAIRUELEGORRETA

Gorbeiako euskal jaia iluntasunetik argitasunera eramateko dokumentala

Urtero-urtero, iraileko lehen-dabiziko bi asteburuetan, Zigoitia Euskaraz ekimena ospatzen da Arabako udalerri horretan, Gorbeia-aren parean. Baita Gorbeian bertan ere, baina ez gailurrean. Izan ere, Gorbeia mendilerroa gurutze ikaragarria dagoen tontorra baino askoz gehiago da. Hamaika gailur, baso eta bazter ezkutu eta eder ditu, galtzeko modukoak. Galtzekotan, baina, hobe nahita galtzea. Araba aldetik igotzeko bideetako bat Murua herrixkatik abiatzen da, hango harrobi zaharren paretik igarota. Gurutzera zuzen igo beharrean eskuintara jota, Mairuelegorreta leize itzelera iristen da. Paleolitoko aztarnak dituen kobazulo horretako 13 kilometrotik gora daude

JENDARTEA / Xabier Izaga Gonzalez

Orain dela 53 urte norbaiti bururatu zitzaion Gorbeiako haitzulo batean «Amaia» ezpata dantza antzeztea, eta, azkenerako, euskal jai bat antolatu zuten. Bada, euskal jai horrek bizirik dirau. Mikel Ezkerroren dokumental batek haren berri eman eta jaialdiaren sortzaileak omentzen ditu: «Mairuelegorreta, iluntasunetik argitasunera».

esploratuta, Arabako Espeleologia Taldeak (AET) ondo asko dakienez. Talde hori 1962an sortu zen, Manuel Iradier Espeleologia Taldeak eta Lan Espeleologikoen Arabako Etxeak bat egin zutenean. Orduz geroztik, Arabako haitzulo gehienak arakatu ditu AETk. Baina espeleologiaz

harago, Euskal Herriaren bilakaera kultural eta politikoan erreferentzia izango zen topaketa baten sortzaile ere izan zen.

Jende askok ez du urtero Gorbeiako kobazulo bateko areto zabal batean egiten duten euskal jaiaren berri; beste batzuek, berriz, badute, baina ez dakite

Niko Etxart eta haren aita Dominika, 2004an, Mairuelegorretako «zezen plazan».
Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

jaialdi horren lehenengo edizioa orain dela mende erdi baino gehiago, 1963an, egin zutela, euskal jaiak jarduera ia subertsiboak ziren garaian; euskara, mendizaleak eta *sano regionalismo*-an sartzen ez zen guztia susmopean zegoen garaian. Edonola ere, hainbat motatako eragozpen ugari aurre eginda, jaialdia baino askoz gehiago izatera iritsiko zen; sasoiko askatasun nahiak hitzordu saihetsezi-na zuen.

Jose Mari Lopez de Elorriaga *Coppi*, euskal musika eta dantzaren mundua barrutik ezagutzen zuena, AETko kide zen. Haren lagunek diotenez, berari bururatu zitzaion Mairuelegorretako «zezen plaza» esaten dioten aretoan «Amaia» ezpata dantza doinurako egindako koreografia dantzatu behar zutela. Eta espeleologo haiek, beste zenbait mendizalek eta dantzarik, eta euskal kulturaren gain-behera kezka zuten beste hainbat lagunek, Manuel Iradier Txangolari Elkartearen eskutik, Coppiren ideari eutsi eta ez zuten atsedetik hartu 1963ko uztailaren 21ean Mairuelegorretako «zezen plazan» «Amaia» ezpata dantza ikusi arte.

DOKUMENTALA

Horrela hasi zen gaur arte iraun duen euskal jai bitxia. Datorren irailaren 11n, igandea, Zigoitia Euskaraz ekimenak antolatutako aste osoko ekitaldien amaiera izango da berriz ere Mairuelegorretakoa.

Luzea ez ezik, jakingarria ere bada jaialdiaren historia, Euskal Herriaren bilakaera kultural eta politikoari estu lotua. Horri erreparatuta, Mikel Ezkerro gasteiztarrek haren gaineko dokumental bat zuzendu du oraindik orain, euskal jai horren sorrera eta bilakaera batzuei gogorarazteko eta beste batzuei haren berri emateko. Zigoitia Euskaraz ekimeneko egitarauaren barruan aurkeztuko du, Mairuelegorretako ekitaldiaren bezperan eta kobazulotik hurbil, Ondategiko kultur etxean, hain zuzen. Zigoitikoa ez da aurkezpen bakarra izango, urrian Gasteizko Oihaneder



Lehenengo edizioa orain dela mende erdia baino gehiago egin zuten; euskara, mendizaleak eta «sano regionalismo»-an sartzen ez zen guztia susmopean zegoenean

Euskararen Etxean ere proiektzio bat egingo baitute. Filmak «Mairuelegorreta, iluntasunetik argitasunera» du izenburu, mende erdia baino gehiago dirauen ekimen ikusgarri hori iluntasunetik ateratzeko ahalegina baita.

Mikel Ezkerrok aspalditik entzuna zien gurasoei Mairulelegorretako jaialdiaren berri, haiek hara joan ohi baitziren 70eko hamarkadan. Ondoren, Zigoitiko lagun batzuek ere hitz egin zioten hartaz eta Mikelen jakin-mina handitu egin zen. Bertatik bertara ikusi zuenean, berehala pentsatu zuen jaialdiaren historia betikotu egin beharra zegoela, eta berak egingo zuela, Ikus-entzunezko ikasketak eginak ditu-eta. Are argiago ikusi zuen premia hori dokumentazio bila hasi zenean. Izan ere, ezer gutxi argitaratu izan da jaialdi horren gainean.

Hartara, jaialdiaren lehen edizioak antolatu zituzten hainbat lagunekin hitz egiteko aukera paregabea izan zuen. Haietako batek, Luis Mari Iriartek, gainera, jaialdiaren lehen ediziotik 80ko hamarkada arteko kronika idatzia zuen, argitaratu gabe baina ez balio gutxi-koa. Leku egokira jo zuen hasieratik informazio bila, Manuel Iradier Elkartera, hain zuzen, eta jaialdiaren garai guztietako lekukotasunak jasotzen hasi zen. Gasteizko Udal Artxi-boan lehen edizioetako argazkiak lortu zituen; beste batzuk, berriz, zenbait partikularrek eman zizkieten, eta Sancho el Sabio Fundazioa ere informazio iturri izan zuen, bertan zenbait artikulua aurkitu baitzituen. Joan den irailean hasi zen Mikel bere taldearekin dokumentazio lanetan buru-belarri eta martxoan bukatu zuen. Ondoren, errealizazio lanen txanda izan zen.

Dokumentalean parte hartu duen lekuko horiek Mikeli esan ziotenez, oso nekeza zen haitzuloko ekitaldia antolatzea. Material guztia haraino garraiatu behar baitzuten, eta 4X4 autoren bat edo beste lortzen bazuten ere, kobazulorainoko azken zatia oinez igo beharra dago derri- gor: soinu ekipoak, txalapartak,

Mikel Ezkerroren filmak «Mairuelegorreta, iluntasunetik argitasunera» du izenburu, ekimen ikusgarri hori iluntasunetik ateratzeko ahalegina baita



Goian, Mikel Ezkerro; behean, kobazuloko sarrera, iaz. Jaizki FONTANEDA | ARGAZKI PRESS eta «Mairuelegorreta, iluntasunetik argitasunera»

jantziak... den-dena bizkarrean hartu behar!

Nekeza zela diote jaialdiaren aitzindariak eta benetan nekeza dela baieztatu du Mikelek, berak ere antzeko lana egin behar izan baitzuen dokumentaleko elka-


rrizketak eta bestelako grabaketak leizean egiteko. Dokumentalaren helburuetako bat, hain zuzen, 53 urte horietan egindako lana aitortu eta ezagutaraztea da. Lan hura eta aurre egin behar izan zieten beste eragozpen ugariak, batez ere frankismo batean. Luis Mari Iriarteren altxor idatzia, 63tik 82ra bitartean idatzitako kronikak, euskal jaiairen lehen etapako beste zenbait antolatzailearen kontakizunekin osatu zituen. Iriarterekin batera, Isidro Saenz de Urturi, Iñaki Agirre, Pepe Elejalde eta Jose Mari Lopez de Elorriagak parte hartu dute filmean. Bigarren etapako lekuko nagusia Joseba Azkarraga da, sasoi hartako antolatzaileetako bat. Eta egungo antolatzaileek, Zigoitia Euskaraz ekimenekoek, 1990az geroztiko informazioa eman dute. Hala-ber, garai guztietako zenbait kantariren lekukotasuna ere jaso du dokumentalak, hala nola Gorka Knörrena, Pantxoa eta Peiorena eta Xabi Solanorena. Mairuelegorretan ez ezik, Gasteizen eta Senperen ere egin dituz grabaketak.

Jaialdiaren testuinguru sozio-politikoa aztertzeko Iñaki Martinez de Luna EHUKo irakasle eta Hizkuntzaren Soziologian adituaren laguntza izan dute, baita Kike Amonarrizen kolaborazioa ere.

DIKTADURA GARAIA

Esan bezala, 1963an ospatu zen Mairuelegorretako lehen euskal jaia, egitarau xumea zuena, Manuel Iradier Elkarreak antolatuta eta Zigoitiko Udalak lagunduta. Gogorarazi beharra dago artean ez zela Ez Dok Amairu mugimendua existitzen. Aurreneko urteetan programazioa sasoi hartako ohiko jaialdietakoen antzekoa izaten zen: txistulariak, abesbatzen bat, alboka, trikitia... eta egun arte ikurra izan den ezpata dantza.

Ikuskizunera gobernadore militarren bat eta alkateren bat agertu izan ziren, eta urtero-urtero, nola ez, ba, Guardia Zibila, inguruetan hedatuta. 60ko hamarkadako zenbait urtetan debekatu ere egin zuten. 70eko hamarkadaren hasieran, ordean,



baimena berreskuratuta, ekitaldi guztiz jendetsua bihurtu zen. Aurreneko urtean, 63an, 2.000 lagunetik gora joan omen ziren; hamar urte geroago, berriz, 20.000 iritsiko ziren. Joseba Azkaragak gogoratzen duenez, bigarren etapako urteetan jaialdiak kutsu erabat aldarrikatzailerak hartu zuen. Murua herritik kobazulorainoko bide osoan eskuorriak, pegatinak eta pankartak ikusten ziren, euskal preso politikoen askatasuna eta beste aldarrikapen politiko batzuk agertzen zituztenak, ikurrinak... Bidean zehar eta batez ere leizeko ekitaldian; «zezen plaza» bitxi hartan independentziaren eta amnistiaren aldeko oihuak gorgarri gertatzen ziren. Bertako giro beroa gailendu egiten zi-

tzaion tenperatura baxuari ordubete baino gehiagoko tartean. Hara gerturatzen ziren guztiek ez zuten haitzulora sartzerik, jakina, baina bai milatik gora lagunek, antzestokiaren inguruko harkaitzak estaltzeraino. Antolatzaileak jaialdiaren bezperan joaten ziren, eta presaketa lanak bukatutakoan, Murruko harrobietan kanpatzen ziren, gaua pasatzeko, betiere Guardia Zibilaren kontrolpean, batzuetan haren bisita jasota. Ohikoa zen nortasun agiriak eskatu edota kentzea, isunak jartzeari, atxiloketa mehatxuak egitea... Poliziak kaleko jantziekin ere igotzen ziren jende artean, baina berehala antzematen zitzaien, euren zapatak denentzen artean nabarmentzen ziren-

Guardia zibilak leizeko sarreran, «zainketa» lanetan. Eskuinean, lehen edizioako kartela. «Mairuelegorreta, iluntasunetik argitasunera»

Garai guztietako zenbait kantariren lekukotasuna jaso du dokumentalak, hala nola Gorka Knörrena, Pantxoa eta Peiorena eta Xabi Solanorena

Baimena berreskuratuta, ekitaldi jendetsua bihurtu zen. Aurreneko urtean, 63an, 2.000 lagunetik gora joan omen ziren; hamar urte geroago, berriz, 20.000 iritsiko ziren

Domingo 21 de Julio de 1963

a las 11'30 horas

La Sociedad

Excursionista "MANUEL IRADIER" con la

colaboración del Ayuntamiento de Cigoitia

PRESENTA

FESTIVAL VASCO

en las GRUTAS DEL GORBEA (Mairuelegorreta)

albokari-danzas

txistus-coros

Recorrido turístico por las cuevas

Con Gascosa «La Casera»

todos los tragos son buenos

Para usted y los suyos ¡¡ES ÚNICA!!

eta. Jaialdia baino egun batzuk lehenago, abestu behar zituzten kanta guztiak gaztelaniara itzultita eraman behar zizkioten Informazio eta Turismoko ordezkari bati. Hark, “askatasuna” eta gustuko ez zuen beste hitzen bat irakurtzen zuenean, ez zuen baimenik ematen. Abesti berberak hitz horiek kenduta eramaten zizkiotenean, berriz, baimena ematen zuen. Edonola ere, abeslariak jaialdian osorik kantatzen zituzten beren abestiak, jakina. Gorka Knörrek filmean gogoratzen duenez, abestiak entzutera bidaltzen zituzten zentsoreetatik inork ere ez zekien euskaraz.

Mikel Ezkerrok dioenez, era guztietako trabak gairatuta egunotara iritsi den ikuskizunak oztopoak izan ditu azken urteotan, batez ere edukierari eta bestelako zenbait traba legal dagokienez. Penagarria iruditzen zaio horrenbeste urteren buruan jaialdia beharko lukeen modu duinean ezin egitea.

Mairuelegorretako euskal jaiak bigarren etapari ekin zionerako, abian zen Ez Dok Hamairu mugimendua, eta oro har Euskal Kantagintza Berriak eka-

gunak ziren jada. Denak igaroko ziren Mairuelegorretako agertokitik, batzuk behin baino gehiagotan. 1976ko egitarauan honako parte hartzaile hauek ageri dira: Manuel Iradier abesbatza, Gorka Knör, Urko, Mikel Laboa, Gontzal Mendibil eta Xeberri, Ibai Rekondo, Gasteizko Iru Bat dultzaina taldea, Artze anaia txalapartariak, Laja eta Iturbide trikitilariak, Murua eta Matxiandiarena bertsolariak eta “Amaia” ezpata dantza. Luxuzko kartela, inondik ere. Aurkezlea, berriz, Xanpun bertsolari lapurtarra izan zen, eta ekitaldiak Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren laguntza izan zuen.

«AMAIA» EZPATA DANTZA, IKUR

Kantariak, musikariak edo bertsolariak, besteak beste, jaialdian ezinbesteko elementua badira ere, ekitaldiaren ardatz eta ikurra “Amaia” ezpata dantza izan da, eta da. Jose Mari Lopez de Elorriagari bururatu zitzaion ideiatik tiraka euskal jai handi eta ederra antolatzera iritsi ziren, baina jatorrizko ideia ahaztu gabe; aitzitik, “Amaia” ezpata dantza elementu nagusia izango zen, eta hala da gaur egun ere.

Jesus Guridiren izen bereko operako zati hori Durangaldeko “Dantzari dantza” multzoko “Zortzinango”-aren eta “Banan-go”-aren doinuen konbinazio orkestratua da. Koreografia, berriz, bi talderen arteko liskarra, haietako baten buruzagiak bestearena hiltzean amaitzen dena. Edizio guztietan dantzatu izan dute. Lehen, gizonezkoek baino ez zuten parte hartzen, eta duela zenbait hamarkada erokeriatzat joko zuten gehienek emakumezkoek ere parte hartzeko proposamena; iaz, ordea, «guduan» emakumeek ere parte hartu zuten. Eta halaxe egingo dute datorren irailaren 11n ere.

ZIGOITIA EUSKARAZ

1982an etenaldi bat gertatu zen. Badirudi belaunaldi arteko jarraipena nolabait moztu zela, eta Manuel Iradier Elkartek jaia antolatzeari utzi zion. 1990ean, Zigoitiko Oketa Elkartek, aisialdiko jardunak eta herri kirolak antolatzen zituenak, lekukoa hartu zuen, harik eta Zigoitia

Lehen, gizonezkoek baino ez zuten parte hartzen «guduan»; iaz, ordea, emakumeek ere parte hartu zuten. Eta halaxe egingo dute datorren irailaren 11n ere

Manuel Iradier Elkartek jaia antolatzeari utzi zion 1982an. Zigoitiko Oketa Elkartek lekukoa hartu zuen 1990ean, harik eta Zigoitia Euskaraz ekimena lan horretaz arduratu zen arte

Euskaraz ekimenak, gaur egungo antolatzaileak, ospakizun horren testuinguruan, lan horretaz arduratzea erabaki zuen arte.

Gaur egun, Euskal Herri osoko jendea hurreratzen bada ere jaira, gehiena Zigoitia, Zuia, Gasteiz eta oro har Gorbeia ingurukoa da. Hala, neurri handian garai batean izan zuen izaera nazionala galduka du.

Formatuak berdintsu iraundu. Duela zenbait hamarkada Xabier Amuriza, Jon Enbeita edo Iñaki Murua Mairuelegorretan ohikoak ziren bezala, azken ur-

teotan Fredi Paiaren, Uxue Alberdiren edo Oihane Perearen bertsoak entzun izan dira harrizko zulotzarrean; behiala Xabier Lete, Benito Lertxundi edo Urko bezala, egun Kepa Junkera, Mikel Urdangarin edo Mikel Markez izaten ditu bisitari. Zortzi egun barru, besteak beste, Kalakan taldearen danborrek akustika aproposa topatuko dute haitzuloan.

OMENALDIA

Mikel Ezkerroren dokumentalak, halaber, omenaldia ere izan nahi du. Mairuelegorretako euskal jaia antolatzen hasi zirenei, jarraitu zutenei eta gaur egun lekukoari eusten diotenei; baita urte luzeetan agertokitik parte hartu izan dutenei eta Gorbeia-ko magala bete izan dutenei ere.

Bestetik, Araba aldarrikatu nahi du, garai zailetan herrialde horretan ere bazegoela euskara eta kulturarekiko grina eta askatasunaren aldeko borrokarekiko konpromisoa ikusarazteko. Hori guztia jaso nahi izan du, eta he-

rri honetan sortu zen fenomeno kultural eta soziopolitiko horren balioa nabarmendu.

Azkenik, Mikelek azpimarratu nahi du lana ez duela berak bakarrik egin, eta baten bat ahazteko beldurrez, lantalde tekniko-kideak zerrendatzen hasi da: Danilo Albin, Irudikate Rec, Haizea Pastor, Anton Mimentza, Jonbi Egurzegi, Galder U. A, Ander Zabaleta, Kokotean Kosk taldea, Berta Alcalde, Izaskun Goienetxea eta Ainhua Aizpurua.

Finantzaketari dagokionez, zenbait erakundetatik, hala nola Zigoitiko Udaletik, Arabako Aldunditik edo Vital Kutxa Fundaziotik jasotako diru laguntzez gainera, kanpaina bat abiatu eta lagun askoren laguntza txikiak jaso dituzte. Baita desilusioren bat ere.

Pozik ageri da Mikel, merezi izan duela uste baitu. Eta hala uste izango bide dute dokumentala ikusten dutenek, beharrezkoa baita mende erdia baino gehiagoko herri ekimen baten garrantzia aitortzea.

Lehen ediziotik, «Amaia»
ezpata dantza jaialdiaren
ardatz eta ikurra izan da.
«Mairuelegorreta, iluntasunetik
argitasunera»

